

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

UNTZAGA-APREGINDANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko jartzea 2017ko bigarren seihiilekoko ordainagiriak

Egin delarik Untzaga-Apregindanan etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren 2017ko bigarren seihiilekoko tasaren errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Espedientea Untzaga-Apregindanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan azertu ahal izango da.

Zergadun errolda jendaurrean jarrita, osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritz otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, 9. artikulua 3. idatz zatian xedatutakoarekin; dena dela, interesdunek berraztertzeko errekurtsioa aurkez dezakete esleitu zaizkien kuoten aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsioak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari jarriko zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea 2018ko martxoaren 12an hasi eta apirilaren 11n bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2018ko apirilaren 11n kobratuko zaie.

Untzaga-Apregindanako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Ordaintzeko borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargua aplikatuta, bat etorritz otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, 28. artikuluan xedatutakoarekin.

Untza-Apregindana, 2018ko otsailaren 26a

Lehendakaria

JOSÉ CARLOS MARÍN CORRES